


Naia Arnedo - Sara Gil
Aixerrota BHI, 15-16

Aurkibidea

Juan Kruz Igerabide	2
Sarrera	2
Motoa	
• Kokapena	3
• Gaia	3
• Argumentua	3
• Istorioa	4
• Pertsonaiak	5
• Egituraketa	5
• Baliabideak	6
Iritzia	6
Bibliografia - Webgrafia	7

Juan Cruz Igerabide

Juan Kruz Igerabide Sarasola Adunan jaio zen (Gipuzkoa) 1956an, eta han bizi da. Maisu ikasketak egin eta irakasle aritu zen zenbait urtetan. Euskal Filologian doktoregoa lortu zuen. Gaur egun Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle da, Euskal Filologia sailean.



Poesia ikertuz eta idatziz sartu zen literaturaren munduan. Haur literaturako ikerketak ere egin zituen eta bere lehen liburua *Begi niniaren poemak* izan zen. Geroztik lan ugari argitaratu ditu, poesia zein prosaz, hala nola, *Izar bat agertu da*, *Elurra sutan* edo *Mailu isila*.

Sarrera

Juan Kruz Igerabidek idatzitako eleberria da, 2012an argitaratua. Liburuak 104 orrialde ditu eta hiru ataletan banatuta dago. Obra hau nerabeak diren irakurleei zuzenduta dago batez ere; gaur eguneko gazteen arazoak eta bizipenak agertzen dira istorioan.

Igor deitutako nerabeak bere arazoak, amodiozko bizipenak, lagunartekoak eta bere esperientzia berriak kontatuko dizkigu.

Motoa

Kokapena

Eleberria lehenaldian kontatuta dago, baina istorioa gaur egunekoa da. Gipuzkoan eta inguruko lekuetan garatzen da trama, Fu Mantxu deitzen duten parkean eta droga pasatzen den kaleetan, besteak beste.

Gaia

Eleberri honen gairik garrantzitsuenak maitasuna eta lagunen arteko adiskidetasuna dira. Baina baita drogak, gaur eguneko krisi egoera, familia eta nerabeen gaiak ere azaltzen dira.

Argumentua

Igorrek moto berri bat erosi du bere aitona utzitako diruarekin, oso pozik dago. Baina bere bizitza aldatuko duen gertakizun bat azaltzen zaio, nagusiagoa den neska eder bat ezagutzen du, Irene. Neska horrek eta bere lagunak ez dute fama onik eskolan, baina Irenek erakarrita, haien lagun egiten da.

Etxeko arazoez gain, diruz larri, amak aita utzi eta bestelako arazo larriago batzuetan sartuko da Igor. Mutila konturatuko da Irene eta bere mutil laguna bakarrik erabili nahi diotela droga kontuetan laguntzeko, baina bere adiskideek eta familiakoek lagunduta, mendekua hartzea lortuko du.

Istorioa

Igorrek, hamabost urteko gazte isil eta lotsatiak motoa erosi du txatartegi batean aitona utzitako erentziaren zati batekin, eta Tripazorro ezizeneko bearen adiskidearen laguntzaz berria izango balitz bezala utzi du.

Egun batean, bi lagunak Tripazorroren motoaren bila dabiltzan bitartean, Irene, institutuko neska eder baina helduago bat, estualdi batean ikusten dute eta Igorrek bere motoan igotzen uzten dio etxeraino eramateko. Gertatutakoaren ondoren neska Igorrekin hitz egiten hazten da, eta eskerrak emateko hurrengo ostiralean bere mutil-lagun Txino, eta adiskideekin geratzea proposatzen dio Igorri. Nahiz eta lagunak lelo hutsak iruditu eta giro arriskutsu batean sartuta daudela jakin, Irenerengana sentitzen duen erakarpena dela eta, berdin zaio eta aurkeztu egiten da. Egoera horrek bere arreba Marinarekin tirabirak edukitzea eragingo dio. Denbora pasatu ahala, Igorren eta Ireneren arteko erlazioa sendotu egiten da, gero eta gehiago, Irenek maitasuna adierazten baitio.

Baina lagun berriekin ateratzearen ondorioz, alkohola edaten eta drogaren bat kontsumitzen hasiko da. Gau batean Irenek eta honen mutil lagunak proposatzen diote drogaren negozioan sartzea, eta orduan, Igor gixajoa ohartzen da horretarako erabili nahi izan dutela lehenengo momentutik. Horregatik, droga gordetzen duten tokia aurkitu eta anonimoki ertzainei ematen die informazio guztia, arreba, Tripazorro eta Txinoren lagun Karretasen laguntzarekin.

Amaitzeko, Irene eta Txino atxilotzen dituzte, eta Igorrek aitona herentziako soberan duen dirua aitari eman eta etxeko krisi-egoera konpontzea lortzen du.

Pertsonaiak

Igor protagonista da, isila eta lotsatia. Motoarekin ibiltzea oso gustuko du. Ez du lagun asko, esan dezakegu bere lagun bakarra Tripazorro deitutako gazte bat dela. Irenekin maitemintzen da, eta droga saltzen duen talde bat harrapatzeko pertsonaia garrantzitsua izango da.

Irene Igorren institutura joaten den neska polita da, ile hori eta begi urdinekoa. Igorrekin egotea gustuko du, nahiz eta Txinoren neskalaguna den. Droga munduan sartuta dago.

Marina Igorren arreba da. Ikasketetan txarto zioan eta horregatik modulu bat egiten ari da. Normalean nahi duena egiten du, baina bere anaia kontrolatzeko ohitura du.

Tripazorro pixka bat lodi dagoen mutila da, Igorren laguna. Txikitatik babestuta eduki du Igor. Mekanikoa da eta bere lagunaren motoa konpontzen eta muntatzen laguntzen dio.

Txino Ireneren mutil laguna da, mutil harroputza eta kontrolatzailea. Drogetan sartuta dago.

Karretas eta Arratoi Txinoren lagunak dira, eta hauek ere drogaren munduan sartuta daude.

Egituraketa

Istoria kronologikoki kontatuta dago; beraz, narrazio lineala da. Hala ere, hasieran iraganera saltoak edo flashback-ak egiten ditu, iraganean gertatutako gertaerak azaltzeko eta istorioa hobeto ulertzeko.

Obra hiru ataletan banatuta dago: lehenengo, pertsonaien aurkezpena eta hasierako egoera aurkezten digu; ondoren, arazo nagusiak azaltzen ditu; eta, azkenik, arazoaren soluzioak eta azkeneko egoera adierazten dira.

Baliabideak

Obra honetan erabilitako narratzailea orojakilea da, hau da, pertsonaien pentsamenduak eta sentimenduak badakizki. Elkarrizketa ugari daude, horien bidez kontaktzen da istorio gehiena.

Kontatzeko estiloa ez da zaila, eta erabili duen lexikoa eta egitura ulergarria eta sinplea da, baina landua. Beraz, esan dezakegu eleberri erraza dela alde horretatik.

Baliabide literarioei dagokienez, metaforak eta konparazioak ikus ditzakegu, besteak beste.

Iritzia

Obra oso interesgarria eta entretenigarria da, gaur eguneko gaiak jorratzen dituelako, esaterako adiskidetasuna, maitasuna, gaueko mundua, gazteen krisia... Igerabidek lehen momentutik harrapatu nahi du irakurlearen arreta eta horretarako azalpen luzerik egin gabe pertsonaien aurkezpen zuzena egiten du, gertakarien bidez. Geroago, Irene agertzean, Igorren bizitza guztiz aldatu eta istorioa erritmo bizian kontatuko da.

Aproposa da nerabezaroa igarotzen ari diren irakurleentzat, haiei zuzenduta baitago batez ere. Igor 15 urteko nerabea izanik, identifikatuta sentitu ahal da irakurlea momentu batzuetan, eta gainera adin honetako gazteak sartzen diren arazoetan murgilduta ikusten da Igor, drogen mundua, alkohola, ezinezko maitasuna eta etxeo iskanbilak esaterako.

Hizkuntzari dagokionez, ez da batere zaila ulertzeko, lexiko sinplea erabiltzen baitu. Hala ere, elkarrizketak bai geratzen dira apur bat bat zailagoak ulertzeko, hikaren erabileragatik. Gainera, liburua motza izanik, azkar eta gustura irakurri daiteke eta trama guztia ez da korapilatsua ulertzeko. Pertsonaien aldetik, oso errealak eta gure adinekoen antzekoak dirudite, eta horrek nolabaiteko hurbiltasuna sorrarazten dio irakurleari.

Amaitzeko, gustura irakurtzen den nobela bizi eta entretenigarria dugu. Narrazio honen irakurlea gaztea izanik identifikaturik sentituko da berehala protagonistarekin, honek duen izaera bereziak erakarrita, eta irakurleari pentsatzera emango dio norbere bizitzari buruz.

Bibliografia eta webgrafia

- *Motoa*, Juan Kruz Igerabide. Alberdania.
- https://eu.wikipedia.org/wiki/Juan_Kruz_Igerabide
- <http://atalak.eus/ikagela-materialak/nola-egiten-da/eleberri-lana/index.html>
- <http://www.atalak.eus/ikagela-materialak/il-hiztegitxoak/eleberriak-bilduma/motoa/motoa-al.pdf>